

3) FUNTSEZKO ELKARTEAK

Guztiok dakigunez, negozio bat funtzionatzea ahalbidetzen dutenak bazkideak eta hornitzaileak dira. Horregatik, funtsezkoa da bazkide- eta hornitzaile-sareak izatea.

Gure kasuan, alde batetik, bazkideak soilik baldintza bi izan behar ditu gure negozioan inbertitu ahal izateko; lehenengoa egun mundu osoan daukagun klima-aldaketaren arazoa konpontzea funtsezko gauza bat bezala ikustea, gure makinek ahalik eta neurri handienez ingurumena kutsatzea saihesten dutenez gero. Eta bigarrena, guk bezala proiektuan konprometzua hartzea, gure berotasun berarekin nahasiz eta gure ahalmenak bultzatuz.

Bestetik, gure hornitzaileek zenbait ezaugarri izan behar dituzte: gure negozioaren helburua ulertzea, hau da, gure produktuak ekologikoak izatea saiatzen garen heinean, enpresa hornitzaile horrek berdina egiten ahalegindu beharko du, materialak eratzeko ahalik eta kutsadura gutxien sorraraziz. Hau esan dezakegu ezaugarri garrantzitsuena dela, enpresa hornitzailea (hauek kantitate handiagoan kutsatzen dutenak direnez gero) beste enpresek bezala axolarik gabe kutsatzen jarraitzen badu, orduan gure proiektuarekin ez genukeelako ia aurrerapenik lortuko eta asken finean gure helburua ez genukeelako beteko. Beste ezaugarri garrantzitsu bat hornitzaileak gu bilatzen ari garen materiala ekoiztea da, eta baita beharrezko materialak prezio egokian egotea ere, guk irabaziak lortu ahal izateko, eta aldi berean, gure proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Aurrean esan dugun bezala, gure produktuak sortzeko hornitzaileak izan behar ditugu, enpresak behar dituen baliabideak eskuratzen eta aldi berean gure proiektua optimizatzen laguntzen digutelako. Baina hauek bezain garrantzitsuak bazkideak dira, gure taldea bezala proiektuarekin arrakasta izateko nahi berdina dituztenez, ikuspegi desberdinak emango dizkigutelako hobetzen laguntzeko eta lan askotan laguntzeko prest egongo direlako gu oso lanpetuta gaudenean. Bazkide eta hornitzaileez gain, negozioak funtzionatzeko gure taldeko bakoitzak funtsezko baliabide bat jarri behar izan du: Mainerrek eta Ainarak bezeroak lortzeko eta hauek produktuak erostez konbentzitzeko

gaitasuna, Argiñek interneteko webgunea pertsonalizatzeko gaitasuna eta Naroak eta NekaneK etxetresnak paperean diseinatzeko gaitasuna.